36. artikulua. *Jarduera ekonomikoen sailkapena.*

Honako talde hauek ezarri dira:

a) A taldea:

Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas- eta merkataritza-jardueretarako establezimenduak, soinu edo ikus-entzunezko erreprodukzio/anplifikazio ekiporik gabeak, jendeari arreta emateko jarduerak dituzten lokalak, bai eta merkataritza- eta industria-jarduerak eta gaueko jarduerarik ez dutenak ere.

Jardueraren barruko zarataren maila ezin izango da 75 dBA baino handiagoa izan.

b) B taldea:

Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas- eta merkataritza-jardueretarako establezimenduak, soinu edo ikus-entzunezko erreprodukzio/anplifikazio ekipoekin ala gabeak, jendeari arreta emateko jarduerak dituzten lokalak, bai eta merkataritza- eta industria-jarduerak eta gaueko jarduera dutenak ere. Musika-ekipoak ezin izango du kutxa autoanplifikaturik erabili. Bozgorailuak ezin izango dira 6» baino gehiagokoak izan, eta anplifikadoreak 50 W-eko gehieneko potentzia garatu beharko du 4 Ohmeko inpedantzia baten gainean.

Jardueraren barruko soinu-maila ezin izango da 75 dBA baino handiagoa izan.

Lasarte-Oriako Udalak Soinuaren mugagailua/erregistragailu bat instalatzea eskatu ahal izango du, Ordenantza honetan eskatzen diren ezaugarrien arabera.

c) C taldea:

Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas- eta merkataritza-jardueretarako establezimenduak, soinua edo ikus-entzunezko erreprodukzio/anplifikatzeko ekipoak dituztenak, hala nola pubak, musika-taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, taberna amerikarrak, disko tabernak (betiere musikarekin baina dantzapistikarik gabe), gimnasioak, dantza-, musika-akademiak eta antzekoak, gastronomia-elkartek, zinema-aretoak, erlijio-zentroak, makina-gelak oro har, txapa- eta pintura-tailerrak, ibilgailuak automatikoki garbitzeko trenaren tailerrak, arotzeria metalikoko eta zura lantzeko tailerrak eta antzekoak, bai eta ekipo zaratastsuak dituzten industria-jarduerak ere.

Musika-ekipoak ezin izango du kutxa autoanplifikaturik erabili.

Jardueraren barruko soinu-maila ezin izango da 90 dBA baino handiagoa izan.

Soinuaren mugagailua/erregistragailua jarri beharko da, Ordenantza honetan eskatzen diren ezaugarrien arabera.

d) D taldea:

Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako establezimenduak, zuzeneko musika eta/edo aurrez grabatutako dantzatzeko moduko musika duten emanaldiak eta kontzertuak dituztenak (dantzalekuak, diskotekak, kafe-kontzertuak, bingoak eta kasinoak eta antzeko beste edozein establezimendu), karaokeak eta antzekoak, bai eta industria-jarduerak ere, baldin eta 95 dBA arteko zarata-mailak sortzen dituzten ekipo zaratastsuak badituzte.

Musika-ekipoak ezin izango du kutxa autoanplifikaturik erabili.

Soinuaren mugagailua/erregistragailua jarri beharko da, Ordenantza honetan eskatzen diren ezaugarrien arabera.

Taldearen sailkapenean sartzen ez diren jardueren ordenantza honek ezarritako mugak betetzeko beharrezko isolamendu akustikoa eskatu ahal izango zaie, egiten duten jardueraren eta zarata-iturrien arabera.

37. artikulua. *Jarduera ekonomikoekin lotutako eskakizun teknikoak eta betebeharrak.*

1. Ostalaritza-jarduerak, zein taldekoak diren kontuan hartuta, honako eskakizun tekniko gehigarri hauek izango dituzte:

Artículo 36. *Clasificación de las actividades económicas.*

Se establecen los siguientes grupos:

a) Grupo A:

Establecimientos de espectáculos públicos, actividades recreativas y comerciales, sin equipos de reproducción/ amplificación sonora o audiovisuales, locales con actividades de atención al público, así como las actividades comerciales e industriales y sin actividad nocturna.

El nivel sonoro en el interior de la actividad no podrá superar los 75 dBA.

b) Grupo B:

Establecimientos de espectáculos públicos, actividades recreativas y comerciales, con o sin equipos de reproducción/ amplificación sonora o audiovisuales, locales con actividades de atención al público, así como las actividades comerciales e industriales y con actividad nocturna. El equipo de música no podrá utilizar cajas auto amplificadas. Los altavoces no podrán ser de más de 6» y el amplificador deberá desarrollar una potencia máxima de 50W sobre una impedancia de 4 Ohmios.

El nivel sonoro en el interior de la actividad no podrá superar los 75 dBA.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá exigir la instalación de un limitador/registrador sonoro según las características requeridas en esta ordenanza.

c) Grupo C:

Los establecimientos de espectáculos públicos, actividades recreativas y comerciales, con equipos de reproducción/ amplificación sonora o audiovisuales, como pueden ser, entre otros, pubs, bares musicales especiales, whiskerías, clubs, bares americanos, disco bares, (siempre con música sin pista de baile), los gimnasios, las academias de baile, música y similares, sociedades gastronómicas, salas cinematográficas, centros religiosos, salas de máquinas en general, talleres de chapa y pintura, talleres con tren de lavado automático de vehículos, talleres de carpintería metálica, de madera y similares, y también aquellas actividades industriales donde se ubiquen equipos ruidosos.

El equipo de música no podrá utilizar cajas auto amplificadas.

El nivel sonoro en el interior de la actividad no podrá superar los 90 dBA.

Se deberá instalar un limitador/registrador sonoro según las características requeridas en esta ordenanza.

d) Grupo D:

Los establecimientos de espectáculos públicos y actividades recreativas, con actuaciones y conciertos con música en directo, y/o música pregrabadaailable (salas de fiestas, discotecas, cafés-concierto, bingos y casinos y cualquier otro establecimiento análogo), karaokes y asimilables, así como actividades industriales donde se ubiquen equipos ruidosos que generen niveles sonoros de hasta 95 dBA.

El equipo de música no podrá utilizar cajas auto amplificadas.

Se deberá instalar un limitador/registrador sonoro según las características requeridas en esta ordenanza.

A las actividades no incluidas en la clasificación de grupos se les podrá exigir el aislamiento acústico necesario para cumplir con los límites marcados por esta ordenanza en función de la actividad que desarrollen y sus fuentes sonoras.

Artículo 37. *Requerimientos técnicos y obligaciones relacionados con las actividades económicas.*

1. Las actividades de hostelería según el grupo al que pertenezcan contendrán los requerimientos técnicos adicionales siguientes:

a) C eta D taldeak: atek eta leihoak itxita daudela egingo da jarduera, aireztapen-elementu egokiekin, eta beharreko motelte-neurriak hartuta, II. eranskinean ezarritako balioak Ez Gainditzeko. Eguneko eta arratsaldeko aldian leihoak eta atek irekita edukitzea onartuko da, betiere soinua eta/edo ikus-entzunezkoak erreproduzitzeko sistemak deskonektatuta badaude.

— Ate bikoitza eskatuko da eta posizio itxira itzultzeko sistema automatikoa, fatxadan eskatutako isolamendua uneoro bermatzeko.

— A) edo E) motako eremu akustikoetan daudenetan, isolamendu-atarte bat eskatuko da establezimenduaren sarreran, bi ateen artean ekorketatik libre egongo den gune batekin, zeinean 1,50 m-ko diametroko zirkulu bat egin ahal izango den. Gainera, posizio itxira itzultzeko sistema automatikoa izan beharko du, fatxadan eskatutako isolamendua uneoro bermatzeko.

— Establezimenduaren barruan 85 dB(A)-tik gorako soinu-presioko mailerara iristen bada, kartelak jarriko dira establezimenduaren sarreran, honako abisu honekin: «Lokal honen barruko soinu-mailek lesio iraunkorrek eragin ditzakete entzumenean». Ondo ikusteko moduko lekuan egongo da abisu hori, tamainari zein argiztapenari dagokienez.

b) B taldea: atek eta leihoak itxita dituela aritzea eskatuko zaio jarduerari, Ordenantzaren arabera kanpoko immisio-maila gainditzeko badu.

c) A taldea: Jarduera horiek ordenantza honetan eskatutako isolamendu-balioak eta zarata-immisioaren mailak betetzen dituztela egiaztatuko dute, eta horrenbestez, ingurumen-baimen edo -lizentziaren eskaeran esplizituki adierazi beharko da kategoria horri dagokiola jarduera. Jarduerak 70 dB(A)-ko edo hortik gorako LAeq,5s maila sortzen duten makina bat edo gehiago baditu, iturritik metro batera neurtuta, inpaktu akustikoaren azterketa eskatuko da.

2. Oro har, A) eta E) motako eremu akustikoetan zarategatik eragozpenak sor ditzaketen jarduera guztiek atek eta leihoak itxita dituztela aritu beharko dute.

3. Kasu guztietan, sartzeko eta kanpora irteteko atek ez du soinurik eragin behar ixtean eta irekitzean, eta saihestu egin behar dira kolpe zakarrak persianetan edo ixteko ateeetan, barrualdean zein kanpoaldean.

4. Lokal itxietako jardueren titularrek zaindu beharko dute erabiltzaileek lokalean sartzean eta bertatik irtetean ez dietela eragozpenik sortzen auzokoei. Gomendio horiei kasurik egiten ez badiete, berehala jakinarazi beharko diote udaltzaingoiari, dagokion ondorioetarako.

5. Jarduerak hasi aurretik mugagailua/erregistragailua jarzea nahitaezkoa den jardueretan, jardueraren titularrak instalazio-txosten bat aurkeztu beharko du, teknikari eskudun batek edo enpresa espezializatu batek emana. Txosten horrek VI. eranskinaren b atalean adierazitakoa jasoko du, aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez. Betebehar hori bera ezarriko da musika/audioa erreproduzitzeko sistemaren elementuren bat aldatzen denean, bai eta titulartasuna aldatzen denean ere, baldin eta soinua mugatzeko/erreproduzitzeko ekipoa instalazio elementuren bat aldatzen bada.

6. Udalak beste baldintza eta betekizun batzuk betetzea eskatu ahal izango du hala nahi duen jardueretan eta establezimenduetan.

38. artikulua. *Jarduerari eta instalazioei lotutako ekipoak eta makinak.*

Instalazio, industria-, merkataritza-, biltegiatze-, kirol-, jolas- edo aisialdi-establezimendu guztietan, ekipoetan eta makinetan beharrezko neurri zuzentzaileak hartuko dira zaratek, bibrazioek

a) Grupos C y D: la actividad se llevará a cabo con las puertas y ventanas cerradas, disponiendo de los elementos de ventilación adecuados y con las medidas amortiguadoras pertinentes a fin de no superar los valores establecidos en el anexo II. En periodo diurno y vespertino se permitirán ventanas y puertas abiertas, siempre que estén desconectados los sistemas de reproducción sonora y/o audiovisuales existentes.

— Se exigirá doble puerta y un sistema automático de retorno a posición cerrada, que garantice en todo momento el aislamiento requerido en la fachada.

— En aquellos situados en áreas acústicas de tipo A) o E), se exigirá un vestíbulo de aislamiento en la entrada del establecimiento, con una zona libre de barrido entre ambas puertas que permita inscribir un círculo de 1,50 m de diámetro. Además, deberá estar dotado de un sistema automático de retorno a posición cerrada, que garantice, en todo momento, el aislamiento requerido de la fachada.

— En caso de que en el interior del establecimiento se alcancen niveles de presión sonora superiores a 85 dB(A), se colocarán carteles a la entrada del establecimiento donde se indique el siguiente aviso: «Los niveles sonoros en el interior de este local pueden producir lesiones permanentes en el oído». Este aviso estará en un lugar perfectamente visible, tanto por su tamaño como a la iluminación.

b) Grupo B: a la actividad se le exigirá el funcionamiento con puertas y ventanas cerradas si excede el nivel de inmisión exterior según la Ordenanza.

c) Grupo A: estas actividades acreditarán el cumplimiento de los valores de aislamiento y niveles de inmisión de ruido exigidos en la presente ordenanza, de modo que se tendrá que manifestar explícitamente en la solicitud del permiso o licencia ambiental que la actividad pertenece a esta categoría. Si la actividad incluye una o más máquinas que generen un nivel LAeq,5s superior o igual a 70 dB(A) medidos a 1 metro de la fuente se exigirá estudio de impacto acústico.

2. En general, todas las actividades susceptibles de ocasionar molestias por ruidos que se desarrollen en áreas acústicas de tipo A) y E), deberán funcionar con las puertas y ventanas cerradas.

3. En todos los casos, la puerta de entrada y salida al exterior no deberá producir ruidos al cerrarse y abrirse, debiéndose evitar los golpes bruscos en persianas o puertas de cierre tanto al interior como al exterior.

4. Los titulares de actividades en locales cerrados deberán velar porque los/as usuarios/as, al entrar y salir del local, no produzcan molestias al vecindario. En caso de que sus recomendaciones no sean atendidas, deberán avisar inmediatamente a la policía local, a los efectos oportunos.

5. En las actividades que sea obligatorio la instalación de un limitador/registrador, previo al inicio de las actividades, el titular de la actividad deberá presentar un informe de instalación, emitido por técnico competente o empresa especializada, que contenga, lo indicado en el apartado B del anexo VI, en lo referente a la documentación a aportar. Esta misma obligación se establece en los casos en el que se modifique algún elemento del sistema de reproducción de música/audio, así como en los cambios de titularidad, siempre que se modifique algún elemento de la instalación del equipo de limitación/reproducción de sonido existente.

6. El ayuntamiento podrá exigir el cumplimiento de otras condiciones y requisitos en actividades y establecimientos que así lo considere.

Artículo 38. *Equipos y maquinaria vinculada a actividades e instalaciones.*

Toda instalación, establecimiento industrial, comercial, de almacenamiento, deportivo-recreativa o de ocio, en los equipos y maquinaria se adoptarán las medidas correctoras necesarias

eta inpaktuek eragindako eragozpenak saihesteko, eta, horrela, II. eranskinean adierazitako soinu- eta bibrazio-mailen muga-balioak ez gainditzeko. Adierazitako neurri horiek jarduera-lizentzia izapidetzeko beharrezkoa den dokumentazio teknikoan deskribatu beharko dira. Besteak beste, eta izaera esklusiborik gabe:

1. Oro har:

a) Bibrazioak sortzen dituzten ekipoak behar bezala motelduta egongo dira.

b) Aire-hartuneetan eta -irteeretan, bereziki behartutako funtzionamenduko erregimenean dauden makinetan, isilgailu akustikoak jarriko dira.

c) Fluido-hodiek juntura elastiko egokiak izan beharko dituzte makinekiko lotura-puntuetan.

d) Abiarazte bortitzeko makinek motelgailuz bermatuta edo esekita egon beharko dute, eta horien mantentze-lanaren bidez funtzionamendu orekatua bermatu.

e) Hiri Antolamenduko Plan Orokorren eta gainerako araudiaren arabera fatxadan baimendu daitezkeen instalazioen kasuan, ezarritako muga-balioak Ez Gainditzeko neurri teknikoak egiaztatuko dira.

f) Ekipoak eta makinak dauden barrutietako isolamendu akustikoen IV. eranskinean zehaztutakoa bete beharko dute.

2. Berariaz:

a) Zati mugikorrek dituen elementu oro kontserbazio-egonean mantenduko da, batez ere oreka dinamikoari eta estatikoari dagokionez, bai eta bere kojineten edo errodadura-bideen ibilera-leuntasunari dagokionez ere.

b) Debeekatuta dago makinak edo haien euskarriak edo edozein organo mugikor zuzenean ainguratzea mehelinetan edo zutabeetan. Esparruak bereizteko zoruetan, sabaietan edo forjatuetan haiek finkatzeko baimena emango da, bibrazioen aurkako gailu egokien bidez egiten bada. Sabaietatik, hormetatik edo zutabeetatik esekiz gero, bibrazioen aurkako gailu egokiek ainguratu beharko dira musika-ekipoen bozgorailuak.

c) Garajeetako ateak eta merkataritza-, industria- eta jolas-jardueretako pertsiana metalikoak, bizitzeko eraikinetan badaude, bibrazioen aurkako gailu egokien bidez ainguratu beharko zaizkio eraikinaren egiturari.

d) Abiarazte bortitzeko makinak, kolpeka edo bat-bateko talen bidez lan egiten dutenak eta mugimendu alternatiboak dituzten organoak dituztenak bankada independenteetan ainguratuta egongo dira, bibrazioen aurkako elementu egokien bidez, lurretik eta eraikinaren egituratik bereiz.

e) Makina guztiak era jakin batean kokatuko dira, hau da, desplazamendu-bidearen amaieran, horma perimetraletatik eta forjatuetatik gutxienez 0,70 metroko distantziara geratuko dira zati irtenenak. Distantzia hori metro batera igo beharko da arteko hormak direnean.

f) Bibrazioak transmiti ditzakeen edozein eroanbide-motak, elementu mugikorrei lotuta egon ala ez, bereizteko gailuak izan beharko ditu, makina horietan sortutako bibrazioak transmititu ez daitezen. Eroaleen bridek eta euskarriek bibrazioen kontrako elementuak izango dituzte. Eroanbide horien sekzioa kalkulatzeko, kontuan hartuko da fluidoaren barne-zirkulazioko erregimenak fluxu laminarraren ezaugarriari eutsi behar diela, fluidoak haietatik ibil daitezen inguruko egiturei zaratarik edo bibrazioirik eragin gabe.

para evitar las molestias producidas por ruidos, vibraciones e impactos para no superar los valores límite de niveles sonoros y vibraciones indicados en el anexo II. Las medidas señaladas deberán describirse en la documentación técnica necesaria para la tramitación de la licencia de actividad. Entre otras, y sin que tengan carácter exclusivo:

1. Con carácter general:

a) Los equipos que produzcan vibraciones estarán debidamente amortiguados.

b) Las tomas y salidas de aire al exterior, especialmente en las máquinas en régimen de funcionamiento forzado, se instalarán silenciosos acústicos.

c) Los conductos de fluidos deberán tener interpuestas juntas elásticas adecuadas en sus puntos de unión con las máquinas.

d) Las máquinas de arranque violento deberán estar apoyadas o suspendidas de amortiguadores garantizando con su mantenimiento un funcionamiento equilibrado.

e) Para las instalaciones autorizables en fachada conforme al Plan General de Ordenación Urbana y resto de normativa, se acreditarán las medidas técnicas para evitar que se superen los valores límite establecidos.

f) Los aislamientos acústicos de los recintos donde se ubiquen los equipos y maquinaria cumplirán lo especificado en el anexo IV.

2. Con carácter específico:

a) Todo elemento con partes móviles se mantendrá en perfecto estado de conservación, principalmente en lo que se refiere a su equilibrio dinámico y estático, así como la suavidad de marcha de sus cojinetes o caminos de rodadura.

b) No se permite el anclaje directo de maquinaria y de los soportes de estas o cualquier órgano móvil en las paredes medianeras o pilares. En los suelos, techos o forjados de separación de recintos se autorizará su fijación si se realiza mediante los dispositivos antivibratorios adecuados. Los altavoces de equipos de música, en caso de suspenderse de techos, paredes o pilares, deberán anclarse con los dispositivos antivibratorios adecuados.

c) Las puertas de los garajes y las persianas metálicas de las actividades comerciales, industriales y recreativas, si se encuentran ubicadas en edificios habitables, deberán anclarse a la estructura del mismo mediante los dispositivos antivibratorios adecuados.

d) Las máquinas de arranque violento, las que trabajen por golpes o choques bruscos y las dotadas de órganos con movimientos alternativos, deberán estar ancladas en bancadas independientes por medio de los elementos antivibratorios adecuados, aisladas del suelo y de la estructura de la edificación.

e) Todas las máquinas se situarán de forma que sus partes más salientes al final de la carrera de desplazamiento queden a una distancia mínima de 0,70 metros de los muros perimetrales y forjados, debiendo elevarse a un metro esta distancia cuando se trate de elementos medianeros.

f) Cualquier tipo de conducción, susceptible de transmitir vibraciones, independientemente de estar unida o no a elementos móviles, deberán disponer de dispositivos de separación que impidan la transmisión de las vibraciones generadas en tales máquinas. Las bridas y soportes de los conductores tendrán elementos antivibratorios. La sección de estas conducciones se calculará de forma que el régimen de circulación de fluidos en su interior mantenga las características de flujo laminar, de tal manera que el fluido circule por ellas sin originar transmisiones de ruido o vibraciones a las estructuras circundantes.

g) Fluidoak mugitzeko eta bizkortzeko ekipoen konexioa, berokuntzako, aireztapeneko, klimatizazioko edo aire konprimatuko instalazioen kasuan esate baterako, gailu elastikoen bidez egingo da hodiaren eta eroanbidearen lehen zatietan, eta, behar izanez gero, banaketa-sare osoan beharrezko elementuak jarriko dira zaratak, bibrazioak eta ariete-kolpeak ez transmititzeko edo eraikinaren egituraren bidez kabitazio-zaratarik ez sortzeko.

h) Hormak zeharkatzen badira, tutuak eta hodiak ez dira zuzenean horman finkatu behar, eta, betiere, eraginkortasun frogatuko muntaia elastikoarekin egingo da.

39. artikulua. *Ordutegiak.*

Hauek dira ebaluazioaldia hasteko eta amaitzeko ordutegiak: eguneko aldia, 07:00etatik 19:00etara; arratsaldeko aldia, 19:00etatik 23:00etara, eta gaueko aldia, 23:00etatik 07:00etara.

40. artikulua. *Mugagailu/erregistragailu akustikoak jartzea.*

1. Eusko Jaurlaritzaren Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko 17/2009 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritako betebeharrari kalterik egin gabe, soinua edo ikus-entzunezkoa erreproduzitzeko sistema duten lokaletan, baldin eta, modu arrazoituan antzematen edo susmatzen bada soinuaren mugagailu/erregistragailua manipulatu egin dela, edo salaketa edo/eta kexu bat baino gehiago izan direla soinu eta/edo ikus-entzunezko erreprodukzio-sistemari dagokionez, soinua mugatzeko/erregistratzeko ekipo bat jarriko da. Haren bidez ziurtatuko da, etengabe, soinu edo ikus-entzunezko erreprodukzio-sistemaren emisioek ez dituztela gainditzen alboko eraikinaren barruan onartzen diren soinu-mailaren mugak, eta Ordenantza honetan eskatzen diren kanporako emisio-mailak betetzen dituztela.

2. Mugagailu akustikoak erabiltzea neurri osagarritzat hartu behar da, baina horrek ez du esan nahi gainerako neurri galdagarriak bete behar ez direnik, hala nola lokala intsonorizatzea.

3. Soinuaren mugagailuek/erregistragailuek soinua eta/edo ikus-entzunezkoa erreproduzitzeko sistema osoan esku hartu beharko dute, modu espektralean, lokalaren isolamendu akustikoak ahalbidetzen duen soinu-maila igorle handiena erabili ahal izateko. Anplifikazioa duen elementurik ezin izango da mugagailuaren/erregistragailuaren kontroletik kanpo egon.

4. Soinuaren mugagailuek/erregistragailuek operatibo izateko behar dituzten gailuak eduki behar dituzte, eta, horretarako, honako funtzio hauek izan beharko dituzte gutxienez:

a) Kanpoko kalibrazio-sistema, kanpoko kalibragailu normalizatu bidez, dagokion mota-oniritziarekin eta aldizkako egiaztapenarekin, kalibrazioaren neurketa fidagarria dela bermatzeko. Kalibrazioa urtero egingo da, eta egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, erabilitako kalibragailua egiaztatzen duten dokumentuekin. Udalak etengabe, automatikoki eta lokaletara joan gabe eskuratu ahal izango ditu mugagailuak/erregistragailuak erregistratutako datuak.

b) Zigilatze-sistema, babes-mekanismoak, giltza elektronikoen edo sarbide-gakoen bidez, gerora manipulatu ezin izateko, eta manipulaziorik badago, ekipoaren barne-memorian gordeta geratuko dira.

5. Ez da inola ere baimenduko soinu-anplifikazioa duten elementuak funtzionatzea mugagailua/erregistragailua konpontzen ez den bitartean edo jatorrizkoaren funtzio berak betetzen dituen beste bat behin-behinean haren ordeztartzen ez den bitartean. Dena den, behin-behineko ordezkapen hori astebetekoa izango da gehienez, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

g) La conexión de equipos para el movimiento y aceleración de fluidos, como es el caso de instalaciones de calefacción, ventilación, climatización o aire comprimido, se realizará mediante dispositivos elásticos en los primeros tramos tubulares y conductos y, si es necesario, la totalidad de la red de distribución se soportará mediante los elementos necesarios para evitar la transmisión de ruidos, vibraciones, golpes de ariete o la generación de ruidos de cavitación a través de la estructura del edificio.

h) Si se atraviesan las paredes, las conducciones tubulares y conductos lo harán sin fijarse directamente a la pared y siempre con un montaje elástico de probada eficacia.

Artículo 39. *Horarios.*

Los valores horarios de comienzo y fin de los distintos periodos temporales de evaluación son: período de tiempo diurno, de las 7:00 a las 19:00 horas; período de tiempo vespertino, de las 19:00 a las 23:00 horas, y período de tiempo nocturno, de las 23:00 a las 7:00 horas.

Artículo 40 *Instalación de equipos limitador/regístrador acústico.*

1. Sin perjuicio de la obligación establecida en el artículo 16 del Decreto 17/2009 de Espectáculos públicos y actividades recreativas del Gobierno Vasco, en aquellos locales donde se disponga de sistema de reproducción sonora o audiovisual en los que se detecte o sospeche, de forma fundada, que pudiera haber manipulaciones del limitador/regístrador sonoro, o por tener reiteradas denuncias y/o quejas con relación al sistema de reproducción sonora y/o audiovisual, se instalará un equipo limitador/regístrador sonoro que permita asegurar, de forma permanente, que bajo ninguna circunstancia las emisiones del sistema de reproducción sonora o audiovisual superen los límites admisibles de nivel sonoro en el interior de las edificaciones colindantes, así como que cumplen los niveles de emisión al exterior exigidos en esta Ordenanza.

2. El empleo de limitadores acústicos debe entenderse como una medida adicional, que no exime del cumplimiento de las demás medidas exigibles, como es el caso de la insonorización del local.

3. Los limitadores/regístradores sonoros deberán intervenir en la totalidad del sistema de reproducción sonora y/o audiovisual, de forma espectral, al objeto de poder utilizar el máximo nivel sonoro emisor que el aislamiento acústico del local le permita. Ningún elemento con amplificación podrá estar fuera del control del limitador/regístrador sonoro.

4. Los limitadores/regístradores sonoros deben disponer de los dispositivos necesarios que les permita hacerlos operativos, para lo cual deberán disponer al menos de las siguientes funciones:

a) Sistema de calibración externo, con un calibrador externo normalizado con su correspondiente aprobación de tipo y verificación periódica, de forma que se garantice la fiabilidad de la medida de calibración. La calibración deberá ser anual y presentar un certificado de esta, aportando documentos de verificación del calibrador utilizado. Los datos registrados por el limitador/regístrador sonoro deberán ser accesibles por el ayuntamiento de forma continua, automática, sin desplazamientos a los locales.

b) Sistema de precintado, mecanismos de protección, mediante llaves electrónicas o claves de acceso que impidan posibles manipulaciones posteriores, y si éstas fuesen realizadas, deberán quedar almacenadas en una memoria interna del equipo.

5. En ningún caso, se permitirá el funcionamiento de elementos con amplificación sonora en tanto no sea reparado el limitador/regístrador o sustituido provisionalmente por otro que realice las mismas funciones que el original, sin que esta sustitución provisional pueda ser por un tiempo superior a una semana, salvo causa de fuerza mayor, debidamente justificada.

6. Mugagailuaren/erregistragailuaren doikuntzak jardueran onar daitekeen gehieneko musika-maila ezarriko du, Ordenantza honetan baimendutako gehieneko muga-balioak ez gainditzeko.

7. Soinuaren mugagailua/erregistragailua instalatzea nahitaezkoa den jarduerak hasi aurretik, jardueraren titularrak instalazio-txostena aurkeztu beharko du, teknikari eskudun batek edo enpresa espezializatu batek egina, VI. eranskinaren B atalean adierazitakoa jasoko duena.

8. Soinua edo ikus-entzunezkoa erreproduzitzeko sisteman edozein aldaketa egin nahi izanez gero, beste instalazio-txosten bat egin beharko da.

9. Lasarte-Oriako Udaleko zerbitzu teknikoek proposatu ahal izango dute behar bezalako funtzionamenduan sarritan aldatetak izaten dituzten aparatuak kentzea eta aldatzea, bai eta bortxaezintasuna bermatzen ez duten aparatuak kentzea eta aldatzea ere.

10. Mugagailu/erregistragailuak sistema mugatzailean bitartekatutako datuak urrutitik transmititzeko sistema bat izan beharko du, teknika erabilgarri onenak aplikatuz kasu bakoitzean zehazten diren espezifikazioen eta prozeduren arabera.

11. Mugagailuak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko, jardueraren titularrak etengabeko mantentze-zerbitzua formalizatu beharko du, soinuaren mugagailua/-erregistragailua urtero kalibratu eta egiaztatu ahal izateko, eta ekipoa matxuraturaz gero, matxura agertu eta astebete igaro baino lehen konpondu edo aldatu ahal izateko. Era berean, mantentze-zerbitzu horren bidez, mugagailuaren transmisio telematikoa behar bezala funtzionatzen duela bermatuko da, udal-teknikariak mugagailura urrutitik sartu ahal izan daitezen eta lokalean dauden soinu-mailak eta gerta daitezkeen gorabeherak denbora errealean ikusi ahal izan ditzaten.

12. Aurreko puntuan aipatu den transmisio telematikoa eta mantentze-zerbitzuaren kostua jardueraren titularrak ordaindu beharko du.

13. Artikulu honetan adierazitako instalazioa, artikulu honen 1. paragrafoan aipatutakoez bestelako establezimenduei ere eskatu beharko die udalak, baldin eta musika-erreproduziko eta/edo ikus-entzunezko ekipoak badituzte, eta, egiten duten jarduerara dela-eta, emisio akustikoak kontrolatzeko komenigarria denean, bai gaikuntza-titulua lortzeko prozeduran, bai Hirigintza-legezketasuna berrezartzeko prozeduran.

V. TITULUA

BIDE PUBLIKOAN JARDUERAK ETA INSTALAZIOAK ARAUTZEKO IRIZPIDEAK

41. artikulua. Bide publikoko obrak eta lanak arautzea.

Eraikinak eraikitzeke, aldatzeko, konpontzeko edo eraisteko obretan eta lanetan, bai eta bide publikoan egiten direnetan ere, aldi baterakoak nahiz jarraituak, publikoak nahiz pribatuak izan, neurri egokiak hartuko dira egindako zaratek dagokion eremurako ezarritako maila akustikoa gaindi ez dezaten, eta honako preskripzio hauek bete beharko dira:

1. Herritarren Bizikidetzari buruzko Ordenantzan ezarritako eskakizunak beteko dira.

Salbuespenezko kasuetan, eta premiazko beharregatik bakarrik, ordutegi horretatik kanpo aldi baterako lanak egiteko baimena eman ahal izango da.

2. Obrak eta lanak egiteko, betiere premiazko beharregatik egiten ez badira eta etxebizitzaren baten fatxadan 75 dB(A)-tik gorako LAeq,1h mailak eragin badituzkete lan-ordutegian, edo 50 dB(A)-tik gorako mailak lan-ordutegitik kanpo, berariazko baimena eskatu beharko dute, denbora-programazioa, aurreikusitako ordutegia eta hartutako neurri zuzentzaileak zehaztuta.

6. El ajuste del limitador/registrador sonoro, establecerá el nivel máximo musical que puede admitirse en la actividad, con el fin de no sobrepasar los valores límite máximos permitidos por esta Ordenanza.

7. Previo al inicio de las actividades en las que sea obligatorio la instalación de un limitador/registrador sonoro, el titular de la actividad deberá presentar un informe de instalación, emitido por técnico competente o empresa especializada, que contenga, lo indicado en el apartado B del anexo VI.

8. Cualquier cambio o modificación del sistema de reproducción sonora o audiovisual llevará consigo la realización de un nuevo informe de instalación.

9. Los servicios técnicos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, podrán proponer que se retiren y sustituyan aquellos aparatos en los que se produzcan frecuentes variaciones en su correcto funcionamiento, o bien de aquellos otros en los que no se pueda garantizar su inviolabilidad.

10. El limitador/registrador deberá disponer de un sistema de transmisión remota de los datos almacenados en el sistema limitador, según las especificaciones y procedimientos que en cada caso se determinen en aplicación de las mejoras técnicas disponibles.

11. A fin de asegurar el correcto funcionamiento del limitador, el titular de la actividad deberá formalizar un servicio de mantenimiento permanente que le permita realizar una calibración y comprobación anual del limitador/registrador sonoro, y en caso de avería del equipo, la reparación o sustitución en un plazo no superior a una semana desde la aparición de la avería. Así mismo, con dicho servicio de mantenimiento se asegurará el correcto funcionamiento de la transmisión telemática del limitador de forma que los técnicos municipales puedan acceder al limitador de forma remota y visualizar en tiempo real los niveles sonoros existentes en el local y las posibles incidencias.

12. El coste de la transmisión telemática y del servicio de mantenimiento contemplado en el punto anterior deberá ser asumido por el titular de la actividad.

13. El ayuntamiento deberá exigir la instalación señalada en este artículo a otros establecimientos distintos de los indicados en el párrafo 1.º de este artículo cuando dispongan de equipos de reproducción musical y/o audiovisuales que por razón de la actividad que desarrollen se considere conveniente para el control de las emisiones acústicas, ya sea en el procedimiento de obtención del título habilitante o en el de restauración de legalidad urbanística.

TÍTULO V

CRITERIOS DE REGULACIÓN PARA ACTIVIDADES E INSTALACIONES EN LA VÍA PÚBLICA

Artículo 41. Regulación de obras y trabajos en la vía pública.

En las obras y trabajos de construcción, modificación, reparación o derribo de edificios, así como en los que se realicen en la vía pública, ya sean temporales o continuados, públicos o privados, se adoptarán las medidas oportunas para evitar que los ruidos emitidos excedan de los niveles acústicos fijados para la respectiva zona, debiéndose ajustar a las siguientes prescripciones:

1. Se cumplirá con los requerimientos dispuesto en la Ordenanza de Convivencia ciudadana.

En casos excepcionales y solamente por necesidades de urgencia se podrá autorizar la realización de trabajos temporales fuera de este horario.

2. Las obras y trabajos, siempre y cuando no se lleven a cabo por necesidades de urgencia y puedan provocar en la fachada de alguna vivienda niveles de LAeq,1h superiores a 75 dB(A), durante el horario de trabajo, o niveles superiores a 50 dB(A), fuera de este, deberán pedir autorización expresa, especificando la programación temporal, el horario previsto y las medidas correctoras adoptadas.

3. Lasarte-Oriako Udalak baldintza gehigarriak ezarri ahal izango ditu obra horiek egiteko eta baimendutako ordutegia finkatzeko.

Obra baimendutakoan, obraren arduradunak aldez aurretik jakinaraziko die eraginpeko bizilagunei obra horiek zein egunetan eta zein ordutegitan egingo diren, eraginpeko etxebizitza-erakinetako sarrera-ateetan jarriko diren informazio-kartelen bidez.

42. artikulua. Bide publikoko zerbitzuak arautzea. Zamalanak.

1. Debekatuta dago salgaiak kargatzeko eta deskargatzeko jarduerak, kutxak, edukiontzia, eraikuntzako materialak eta objektuak manipulatzeko lanak egitea Herritarren Bizikidetzari buruzko Ordenantzak ezarritako ordutegietan, etxebizitza- edo bizitegi-eremuei eragiten dietenean. Salbuetsita daude karga- eta deskarga-lanak egiteko ibilgailuak bertara sartzen diren eraikinen barrualdeko guneetan egiten direnak, edo lan horiek egiteko berteko elektriko isilak dituztenak.

2. Salgaiak kargatzeko eta deskargatzeko lanak ibilgailuaren zoruaren edo zoladuraren gainean zuzeneko inpakturik eragin gabe egingo dira, eta ibilbidean zehar zama mugitzeak edo dardara egiteak sor dezakeen zarata saihestuko da.

3. Industrialdeetan, karga eta deskargarako ordu-mugak ez du eraginik izango, baldin eta inguruko etxebizitzetara eragiten ez badie.

4. Lasarte-Oriako Udalak materialak kargatzeko eta deskargatzeko baimena eman ahal izango die aurreko paragrafoan ezarritako ordutegietara egokitzeko ezintasuna teknikoki justifikatzen duten enpresei edo saltokiei.

VI. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA. PROZEDURA

43. artikulua. Hots-kutsaduraren arloko udal-ikuskaritzaren eginkizunak.

1. Udal-zerbitzu eskudunari dagokio, bere eskumenen esparruan, Ordenantza honetan xedatutakoa beteko dela bermatzeko ikuskatze-eginkizuna betetzea.

2. Udal langileek egin ahal izango dituzte ikuskapenak, ofizioz, Udal honen ekimenez edo eragindako edozein pertsona eskatuta, Ordenantza honetan ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko.

3. Hots-kutsaduraren arloan ikuskatze- edo egiaztatze-lanak egiten dituen enplegatu publikoa agintaritzaren agentea izango da, etxeetan sartzeko behar den baimen judizialari kalterik egin gabe, eta honako ahalmen hauek izango ditu:

a) Hots-kutsadura sortzen duen edo jasotzen duen jardueran, instalazioan edo eremuan sartzeko, aurrez identifikatuta.

b) Ikuskatu beharreko jarduera edo instalazioa legeztazeri buruzko dokumentazio akustikoa eskatzeko, aplikatzeko den legeria kontuan hartuta egoki den gainerako dokumentazioa alde batera utzi gabe.

c) Ordenantzaren aginduak eta jarduera legeztazeri baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren egiaztapen eta neurketa akustikoak egiteko.

d) Bere eginkizunak betetzean, udaltzainei laguntza eskatzeko.

3. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá establecer condiciones adicionales para la realización de estas obras y fijar el horario permitido.

Una vez autorizada la obra, el responsable de la misma informará con antelación al vecindario afectado de los días y de la franja horaria en que se llevarán a cabo estas actuaciones mediante carteles informativos en las puertas de entrada de los edificios de viviendas afectados.

Artículo 42. Regulación de servicios en la vía pública. Actividades de carga y descarga.

1. Se prohíben las actividades de carga y descarga de mercancías, manipulación de cajas, contenedores, materiales de construcción y objetos, en los horarios establecidos por la Ordenanza de Convivencia ciudadana, cuando afecten a zonas de vivienda o residencial. Quedan exentas las que se realicen en una zona del interior de las edificaciones donde accedan los vehículos para realizar las operaciones de carga y descarga o dispongan de medios silenciosos eléctricos para realizarlas.

2. La carga y descarga de mercancías se efectuará sin producir impactos directos sobre el suelo del vehículo o del pavimento y se evitará el ruido producido por el desplazamiento o trepidación de la carga durante el recorrido.

3. En los polígonos industriales no regirá la limitación horaria de carga y descarga, siempre y cuando no afecte a las viviendas próximas.

4. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá autorizar la carga y descarga de materiales a aquellas empresas o comercios que justifiquen técnicamente la imposibilidad de adaptarse a los horarios establecidos en el apartado anterior.

TÍTULO VI

RÉGIMEN JURÍDICO. PROCEDIMIENTO

Artículo 43. Funciones de inspección municipal en materia de contaminación acústica.

1. Corresponde al Servicio Municipal competente, en el ámbito de su competencia, el ejercicio de la función inspectora tendente a garantizar el cumplimiento de lo dispuesto en esta Ordenanza.

2. Las inspecciones podrán realizarse por parte del personal municipal, bien de oficio, por propia iniciativa de este Ayuntamiento, o a instancia de cualquier persona afectada, con el objeto de comprobar el cumplimiento de las exigencias determinadas en esta Ordenanza.

3. El empleado público que realice funciones de inspección o comprobación en materia de contaminación acústica tendrá el carácter de agente de la autoridad, sin perjuicio de la necesaria autorización judicial para la entrada en domicilio, tendrá las siguientes facultades:

a) acceder previa identificación a la actividad, instalación o ámbito generador o receptor de contaminación acústica.

b) requerir la documentación acústica relativa a la legalización de la actividad o instalación objeto de inspección, sin perjuicio del resto de documentación que proceda teniendo en cuenta la legislación aplicable.

c) realizar las comprobaciones y mediciones acústicas necesarias para verificar el cumplimiento de las prescripciones de la Ordenanza y condiciones bajo las que se haya legalizado la actividad.

d) requerir, en el ejercicio de sus funciones, el auxilio de los agentes de la Policía Local.

44. artikulua. Eragozpenen titularren edo arduradunen eta salatzaileren laguntza.

1. Zarata-fokuen titularrek edo arduradunek beharrezko laguntza eman beharko diete udal-ikuskatzaileei, haiek beren lana egin dezaten.

2. Zarata eta bibrazioak sortzen dituzten establezimenduen eta jardueren titularrak edo arduradunak behartuta daude ikuskatzaileei beren instalazioetan edo zarata eta bibrazioak sortzen dituzten fokuetan sartzen uztera, eta ikuskatzaileek agindutako abiadura, potentzia, karga edo martxetan jarri beharko dituzte. Titularrek eskubidea izango dute ikuskapen-prozesu osoaren lekuko izateko.

3. Salatzailerek beharrezko laguntza eman behar diete agintari eskudunei edo haien agentei ikuskapenak egiteko (azterketak, kontrolak, neurketak eta abar), eta salatutako eragozpenak dauden lekura sartzen utzi behar diete.

4. Salatzailerek ez badu laguntzarik ematen Administrazioaren ikuskatze-eginkizunean, prozedura amaitu egingo da, dagozkion izapideak egin ondoren, administrazio-prozedura orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik.

5. Ingurumen arloko ikuskapen edo egiaztapen bat egiteko etxebizitza batean edo bisitegi-erakin batean sartu behar bada eta etxebizitza edo eraikinean bizi dena edo jabea horren aurka agertzen bada, dagokion akta egingo da eta, premiaz, epailearen baimena eskatuko da.

45. artikulua. Salaketak.

1. Ordenantzan jasotako arauak ez betetzeagatik jarritako salaketek kasuan kasuko eginbideak hastea ekarriko dute. Beharrezko ikuskapen-lanak egingo dira salatutako egitateak egiazkoak direla egiaztatzeko eta, hala badagokio, zehapen-espeditentea abiarazteko. Espeditentea hasi den ala ez jakinaraziko zaie salatzailerei, bai eta ebazpenaren berri eman ere.

2. Salaketak honako hauek adierazi beharko ditu: salaketa egin duen pertsonaren edo pertsonen nortasuna, salatutako jardueraren datuak, arau-haustea izan daitezkeen gertakarien kontakizuna, arau-haustea noiz egin den eta, ahal bada, ustezko erantzuleen identifikazioa.

3. Salaketa ausarkeriaz arrazoirik gabea bada, salatzaileren kontura izango dira jarduketek eragin dituzten gastuak. Fede txarrez egin dela egiaztatu bada, dagokion zehapena ere jarriko da.

46. artikulua. Udal-ikuskapenaren txostena.

1. Ikuskapen-bisita guztien akta egingo da eta kopia emanango zaio agertutakoari (jardueraren titularra edo arduraduna edo langilea). Pertsona horiek akta sinatzeari uko egiten badiote, ikuskatzaile jarduleak baimenduko du, eta aktan jasoko da.

2. Ikuskapen-jardueren emaitzak akta batean formalizatu dira, eta aski izango dira gero bulegoan txosten bat idazteko. Akta horiek hurrenez hurren zenbakituta egon beharko dute, eta aktetan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- a) Zein lekutan, egunetan eta orduetan jardun den.
- b) Neurketa egin den lekuaren eta zarata- edo bibrazio-motaren deskribapena.
- c) Ikuskatzaile jardulearen edo jarduleen identifikazioa.
- d) Titularraren, ordezkariaren, arduradunaren, mendekoaren edo lekukoaren identifikazioa, hala badagokio.
- e) Gertaeren deskribapena, hala badagokio, ustez arau-haustek izan direnak adierazita.
- f) Ustez arau-haustea egin duen pertsonaren inguruabarrak, identifikatu daitezkeen, edo hots-kutsadura zein lekutatik sortzen den argi eta garbi adieraztea.

Artículo 44. Colaboración de los titulares o responsables de las molestias y de los denunciantes.

1. Los titulares o responsables de los emisores acústicos estarán obligados a prestar a los inspectores municipales la colaboración necesaria a fin de que éstos puedan desarrollar su cometido.

2. Los titulares o responsables de los establecimientos y actividades productoras de ruidos y vibraciones facilitarán a los inspectores el acceso a sus instalaciones o focos generadores de ruidos y vibraciones y dispondrán su funcionamiento a las distintas velocidades, potencias, cargas o marchas que les indiquen los inspectores, pudiendo presenciar la inspección.

3. Los denunciantes deben prestar a las autoridades competentes, o a sus agentes, la colaboración necesaria para realizar las inspecciones pertinentes (exámenes, controles, mediciones, etc.), permitiendo el acceso al lugar de las molestias denunciadas.

4. La falta de colaboración por parte del denunciante, en la función inspectora de la Administración, tendrá como consecuencia, previo los trámites oportunos, la terminación del procedimiento, de conformidad con lo establecido en el procedimiento administrativo general.

5. Cuando para la ejecución de una inspección o verificación ambiental sea preciso entrar en un domicilio o edificio residencial y el residente o el propietario de la vivienda o edificio se opusieran a ello, se levantará la correspondiente acta y, con carácter de urgencia, se solicitará la correspondiente autorización judicial.

Artículo 45. Denuncias.

1. Las denuncias por infracciones de la Ordenanza darán lugar a la apertura de las diligencias correspondientes con objeto de comprobar, mediante la oportuna inspección, la veracidad de los hechos denunciados e incoar, en su caso, expediente sancionador notificándose a los denunciantes la iniciación o no del mismo, así como la resolución que recaiga.

2. La denuncia deberá expresar la identidad de la persona o personas que la formulan, datos de la actividad denunciada, relato de los hechos que pudieran constituir infracción, fecha de su comisión, e identificación de los presuntos responsables si es posible.

3. De resultar temerariamente injustificada la denuncia serán de cargo del denunciante los gastos que originen las actuaciones. Comprobada mala fe, se impondrá además la sanción correspondiente.

Artículo 46. Informe de inspección municipal.

1. De toda visita de inspección se levantará acta y se entregará copia al compareciente (titular de la actividad o persona responsable o persona trabajadora en la misma). Si dichas personas se negaran a firmar el acta, ésta será autorizada por el inspector actuante y se hará constar en la misma.

2. Los resultados de las actuaciones inspectoras se formalizarán en un acta y serán suficientes para emitir posteriormente un informe redactado en la oficina. Dichas actas deberán estar numeradas correlativamente y en las mismas se harán constar, como mínimo, los siguientes datos:

- a) Lugar, fecha y hora en que se actúa.
- b) Descripción del lugar de la medida y del tipo de ruido o vibración.
- c) La identificación del inspector o inspectores actuantes.
- d) La identificación del titular, representante, responsable, dependiente o testigo, en su caso.
- e) Descripción de los hechos, indicando, en su caso, los presuntamente constitutivos de infracción.
- f) Las circunstancias de la persona que presuntamente comete la infracción, cuando sea posible su identificación, o indicación clara y precisa del lugar desde el cual se genera la contaminación acústica.

- g) Ikuskatu duten jarduerari, enpresari, zerbitzuari edo ibilgailuari buruzko datuak.
- h) Hartutako behin-behineko neurriak, hala badagokio.
- i) Neurketak egiten badira, honako hauek sartuko dira:
 - Neurketa egin den lekuaren eta zarata- edo bibrazio-mota-ren deskribapena.
 - Neurketa mota: zarata, isolamendua edo bibrazioak.
 - Neurketa-ekipoen identifikazioa: marka, modelo, serie-zenbakia, kalibrazio- edo egiaztapen-data.
- j) Garrantzitsutzat jotzen den beste edozein gorabehera.

47. artikulua. Egiazkotasun-presuntzioa.

1. Ikuskapenaren aktetan jasotako egitateak egiazkotzat joko dira, eta froga-balioa izango dute, interesdunek beren interesen alde aurkez ditzaketan gainerako frogel kalterik egin gabe.

2. Udal-ordezkariek egindako zarata-neurketaren akta normalizatuak, baldin eta giroko zarata eta neurtu beharreko instalazioak, jarduerak edo portaerak eragindako zarata bereizten ez badira, alde aurreko informazioaren parte izango dira. Nolanahi ere, organo eskudunak egokitzat hartzen dituen ikuskapenak edo egiaztapenak egin ahal izango ditu kasu zehatzaren inguruarrak eta prozedura hastea komeni den ala ez jakiteko.

48. artikulua. Legezketasuna babesteko prozedura.

1. Ikuskapen-bisitaren ondorioz agerian geratzen bada Ordenantza hau ez dela bete, neurri zuzentzaileen eta, hala bada, gogokio, zehapenen espedienteak hasiko da.

2. Prozeduraren instrukzioa amaitutakoan, organo eskudunak honako hauek egin ahal izango ditu:

a) Hutsegiteak zuzentzeko edo konpontzeko eskatu titularrari, har daitezkeen neurri zuzentzaileen izaerarekin bat datozen epean. Epe hori ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, interesdunari hamar eguneko epean entzun ondoren.

Egikaritze-epea zehazteko, kontuan hartuko dira adierazita zuzentzeko aukerak, jardueraren baldintzak eta geldiaraztearen zein jarraitzearen ondorioz sor daitezkeen gorabeherak.

b) Zehapenik gabeko banakako aginduak eman soinu-iturri asaldatzailearen funtzionamendua berehala eteteko, antzemandako akatsak zuzendu arte, honako inguruabar hauetakoan bat gertatzen denean:

I. Kasuan kasuko lizentzian, baimenean eta ingurumenean esku hartzeko tresnan zaratei eta bibrazioei buruz ezarritako baldintzak ez betetzea, eta, bereziki, jardueretan instalatutako ekipo mugatzaile erregistratzailea aldatu edo manipulatu dela, edo ekipo hori falta dela egiaztatzea.

II. 10 dBA edo gehiagotan gainditzea aplikatu beharreko araudian zaratak transmititzeko ezarritako mugak.

III. 10 dB edo gehiagotan gainditzea aplikatu beharreko araudian zaratak transmititzeko ezarritako mugak.

IV. Ingurumenari kalte egiteko edo pertsonen edo ondasunen arriskua sortzeko arrazoi sendoak egotea.

3. Egiaztatzea.

a) Akatsak zuzentzeko emandako epea amaitutakoan, eragozpenen erantzuleak ez badu zuzendu dituela agiri bidez jakinarazi edo/eta egiaztatu, udal-teknikariak txostenean zehaztu duenaren arabera, akatsak zuzentzeko neurri zuzentzaileak ez direla hartu ulertuko da, eta zuzenbidean dagozkion ondorioak izango ditu.

g) Los datos relativos a la actividad, empresa, servicio o vehículo que inspeccionan.

h) Las medidas provisionales adoptadas, en su caso.

i) En el supuesto de que se realicen mediciones, se incluirá:

- Descripción del lugar de la medida y del tipo de ruido o vibración.

– El tipo de medición: ruido, aislamiento o vibraciones.

– Identificación de los equipos de medida: marca, modelo, número de serie, fecha de calibración o verificación.

j) Cualquier otra circunstancia que se estime relevante.

Artículo 47. Presunción de veracidad.

1. Los hechos que figuren recogidos en las actas de la inspección se presumirán ciertos, y gozarán de valor probatorio, sin perjuicio de las demás pruebas que los interesados puedan aportar en defensa de sus respectivos intereses.

2. Las actas normalizadas de medición de ruido levantadas por representante Municipal, en las que el ruido ambiente no esté diferenciado del ruido provocado por la instalación, actividad, o comportamiento objeto de la medición, formarán parte de la información previa, sin perjuicio de que el órgano competente, a fin de conocer las circunstancias del caso concreto y la conveniencia o no de iniciar el procedimiento correspondiente, efectúe las inspecciones o verificaciones que estime convenientes.

Artículo 48. Procedimiento de protección de la legalidad.

1. Si del resultado de la visita de inspección se pusiera de manifiesto el incumplimiento de esta Ordenanza, se iniciará el correspondiente expediente de medidas correctoras y en su caso sancionador.

2. Concluida la instrucción del procedimiento el órgano competente podrá:

a) Requerir al titular de la misma para que corrija o subsane las deficiencias, en un plazo acorde con la naturaleza de las posibles medidas correctoras a adoptar, que no podrá ser superior a seis meses, salvo casos especiales o excepcionales, debidamente justificados, previa audiencia del interesado en el término de diez días.

Para la determinación del plazo de ejecución serán tenidas en cuenta las posibilidades de corrección que hayan sido señaladas, las condiciones de la actividad y las contingencias que puedan derivarse tanto de su paralización como de su continuidad.

b) Adoptar órdenes individuales no sancionadoras, dirigidas a la suspensión inmediata del funcionamiento de la fuente sonora perturbadora, hasta que sean corregidas las deficiencias detectadas, cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

I. Incumplimiento de las condiciones impuestas en la licencia, autorización e instrumento de intervención ambiental correspondiente, sobre ruidos y vibraciones, y en particular, la constatación de la alteración o manipulación del equipo limitador registrador instalado en las actividades, o la falta del mismo.

II. Sobrepasar en 10 dBA o más, los límites para la transmisión de ruidos, establecidos en la normativa aplicable.

III. Sobrepasar en 10 dB o más, los límites para la transmisión de vibraciones, establecidos en la normativa aplicable.

IV. Existencia de razones fundadas de daños al medio ambiente o peligro para las personas o bienes.

3. Comprobación.

a) Finalizado el plazo concedido para la subsanación de deficiencias, sin que el responsable de las molestias comunique y/o acredite documentalmente, según haya determinado el Técnico Municipal en su informe, su ejecución, se entenderá que no han sido adoptadas las medidas correctoras que subsanen las deficiencias, siguiéndose los efectos que en derecho procedan.

b) Zarataren edo bibrazioen sortzaileak egiaztatu badu akatsak konpontzeko neurri zuzentzaileak hartu dituela, udal-teknikariak txostenean zehaztu duenaren arabera, hori agiri bidez jakinarazita edo/eta egiaztatuta, berriz ere egiaztatuko dira zarata edo bibrazioak eragin dituen elementuaren, jardueraren edo instalazioaren zarata edo bibrazioak.

c) Hartutako neurri zuzentzaileak aski ez direla egiaztatu eta ez-betetzea eragin duten arrazoiak aztertu ondoren, ikuskapena egiteko eskumena duen organoak beste epe bat eman ahal izango du akatsak konpontzeko neurri zuzentzaileak hartzeko. Epe hori ezin izango da emandako lehen epea baino luzeagoa izan.

4. Ebaztea.

Aurreko ataletan aipatutako epeak amaitutakoan, eskatutakoek ez badituzte hartu txosten teknikoetan adierazitako akatsak zuzentzeko neurri zuzentzaileak, honako neurri hauetako bat hartu ahal izango da, arrazoiak emanda eta interesdunei entzun ondoren:

a) Nahasmenduak zuzendu daitezkeenean eta zuzenketa hori egin arte:

1.— Jarduera etetea.

2.— Instalazioak aldi baterako ixtea, osorik edo zati bat.

3.— Aparatuak edo ekipoak aldi baterako zigilatzea edo kentzea.

Horretarako, behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu ahal izango da.

b) Nahasmenduak zuzendu ezin direnean:

1.— Jarduera bertan behera uztea.

2.— Instalazioak behin betiko ixtea, osorik edo zati bat.

3.— Aparatuak edo ekipoak behin betiko zigilatzea.

Artikulu honetan ezarritako behin-behineko polizia-neurrien bat edo banakako aginduren bat hartu bada, eta eragozpenak sortu dituenak, udal-teknikariak txostenean zehaztu duenaren arabera, agiri bidez jakinarazi eta egiaztatu badu akatsak zuzentzeko neurri zuzentzaileak hartu direla, udal-teknikariak akatsak zuzendu direla egiaztatuko dute.

Egiaztapena egiteko dagokion zitazioa egin ondoren, baldin eta erreklamatzailak atzeratzen, eragozten edo oztopatzen badu –salatzailearen etxean sartzea beharrezkoa izateagatik– akatsak zuzentzeko neurri zuzentzaileak hartu direla egiaztatzeko bisita egitea, organo eskudunak behin-behineko polizia-neurrien edo hartutako banakako aginduen eraginkortasuna eten ahal izango du, harik eta egiaztapen-bisita egin ahal izan arte –dela salatzailearen baimena lortu delako, dela, halakorik ezean, epailearen baimena lortu delako–. Ondorioz, bertan behera geratuko dira zarategatik eta bibrazioengatik jarritako salaketak salatuari eragin dizkion edo eragin diezazkiokeen ondorio juridikoak.

Artikulu honetan jasotako banakako neurriak eta aginduak hartzea ez dago lotuta dagokion zehapen-prozedura hastearekin.

VII. TITULUA

ZEHAPEN-PROZEDURARI BURUZKO ARAUAK

49. artikulua. *Behin-behineko neurriak eta udalaren jarduna.*

Eman daitekeen ebazpena eraginkorra izan dadin, prozedura hasi aurretik edo prozeduran zehar, kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, honako hauek, besteak beste: aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak zigilatzea, establezimenduak edo instalazioak bertan behera uzteko eta zigilatzeke agindua edo emandako lizentziak edo baimenak aldi baterako etetea, edo ibilgailuak ibilgetzea eta erretiratzea.

b) Cuando el causante del ruido o vibraciones acredite comunicando y/o acreditando documentalmente, según determine el informe del Técnico Municipal, la adopción de las medidas correctoras que subsanen las deficiencias, se procederá a una nueva comprobación del ruido o vibraciones del elemento, actividad o instalación causante del mismo.

c) Comprobada la insuficiencia de las medidas correctoras adoptadas y examinadas las razones que hayan dado lugar al incumplimiento, el órgano competente para la inspección podrá conceder un nuevo plazo para la adopción de medidas correctoras que subsanen las deficiencias, que no podrá ser superior al primer plazo concedido.

4. Resolución.

Agotados los plazos a que se refieren los apartados anteriores sin que, por los requeridos, se hayan adoptado las medidas correctoras que subsanen las deficiencias señaladas en los informes técnicos, podrán acordarse motivadamente, previa audiencia de los interesados, alguna de las medidas siguientes:

a) Cuando sea posible corregir las perturbaciones y hasta que esa corrección se produzca:

1.— Suspensión de la actividad.

2.— Clausura temporal, total o parcial, de las instalaciones.

3.— Precintado o retirada temporal de los aparatos o equipos.

A estos efectos, se podrá exigir la adopción de las medidas correctoras necesarias.

b) Cuando no sea posible corregir las perturbaciones:

1.— Cese de la actividad.

2.— Clausura definitiva, total o parcial, de las instalaciones.

3.— Precintado definitivo de los aparatos o equipos.

En el supuesto de que se hayan adoptado algunas de las medidas de policía provisionales u órdenes individuales establecidas en el presente artículo y el causante de las molestias haya comunicado y acreditado documentalmente, según determine el informe del Técnico Municipal, la adopción de las medidas correctoras que subsanen las deficiencias, se procederá a la comprobación por los técnicos municipales de la subsanación de las deficiencias.

Realizada la correspondiente citación para la comprobación, si el reclamante dilata, impide u obstaculiza –por ser necesario entrar en el domicilio del denunciante–, la realización de la visita de comprobación de la adopción de las medidas correctoras que subsanen las deficiencias, el órgano competente podrá suspender la eficacia de las medidas provisionales, de policía u órdenes individuales adoptadas, hasta que se realice la visita de comprobación –bien por haberse obtenido el consentimiento del mismo o bien, en su defecto, por haberse obtenido la correspondiente autorización judicial–, y se pueda realizar la oportuna visita de comprobación, quedando en suspenso los posibles efectos jurídicos que la citada denuncia por ruidos y vibraciones haya causado o pueda causar al denunciado.

La adopción de las medidas y órdenes individuales contempladas en este artículo será independiente de la incoación del procedimiento sancionador correspondiente.

TÍTULO VII

NORMAS RELATIVAS AL PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

Artículo 49. *Medidas provisionales y actuación municipal.*

Para garantizar la eficacia de la resolución que pudiera acordarse, con carácter previo a la incoación de procedimiento, o en el transcurso del mismo, podrán adoptarse medidas cautelares, consistentes, entre otras, en el precinto de los aparatos, equipos o vehículos, orden de cese y precinto de establecimientos o instalaciones o suspensión temporal de las licencias o autorizaciones concedidas, o inmovilización y retirada de vehículos.

Dagozkion akten bidez egiaztatu bada zarata sortzen duen foku batek behin eta berriz enbarazu larria eragiten duela, behin-behineko neurri egokiak hartu beharko dira urgentziaz. Kasu zehatz bakoitzean bermatu nahi diren helburuen intentsitatera, proportzionaltasunera eta premiara egokitu dira neurri horiek.

50. artikulua. Lehengoratzeko betebeharra.

1. Ustez erantzuleak direnek ezarritako neurri zuzentzaileak hartu beharko dituzte, ezartzen den zehapen penala edo administratiboa edozein dela ere.

2. Arau-hausteen preskripzioak ez du eraginik izango pertsona horien jardunaren ondorioz aldatutako ingurumen-kalitatea aldatu aurreko egoerara egokitzeko betebeharrean.

51. artikulua. Zuzeneko polizia administratiboaren neurriak.

1. Udaltzaingoak Ordenantza honetan aurreikusitako xedapenak berehala betetzeko eskatuko du uneoro.

2. Jokabide antijuridikoak salatzeo aukera baztertu gabe, arauak errespetatzen ez dituzten pertsonen ahoz eskatu ahal izango die beren jarrera bertan behera uzteko, jokabide hori espazio publikoetan gertatzen denean, bizilagunen atseden eta lasaitasuna modu larrian nahastuz eta herritarren bizikidetzeta eta gizalegea hondatuz. Ohartaraziko zaie, aurre eginez gero, erantzukizun penala izan dezaketela desobedientziagatik, eta lekutik aterarazi ditzaketela, betiere kongruentzia-, egokitasun- eta proportzionaltasun-printzipioak beteta.

3. Salbuespenez eta berehala, eremu publikoan, soinu-jardueraren batek udal-lizentziarik gabe funtzionatzen duela egiaztatuz gero, edo baimendutako jardueraren batek izanik, baimendutako soinu-maila 10 dBA baino gehiagotan gaintitzen dela egiaztatzen bada, Udaltzaingoak honetan ezarritako mugen arabera, edo baimendutako ordutegia 30 minutu baino gehiagotan gaintitzen bada, Udaltzaingoak aparatuak, ekipoak, tresnak edo beste edozein soinu-iturri konfiskatu edo zigilatatu ahal izango ditu, jokabide arau-haustea irauten ez dezan, hargatik eragotzi gabe dagozkion zehapen-prozedura irekitzea, eta horrek erabakiko du hartutako behin-behineko neurriak mantenduko diren ala ez diren.

4. Establezimenduetako eta higiezinetakoko alarmek nahiz ibilgailuetakoko sortutako zarata-emisioen kasuan, Udaltzaingoari ahalmena ematen zaio alarma horiek eteteko behar diren bitartekoak erabiltzeko. Halaber, produktu piroteknikoek baimenik gabe eztanda egitean sortzen den zarataren kasuan, produktu horiek konfiskatu ahal izango dira.

52. artikulua. Zehapen-prozeduraren printzipioak.

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek zehatzeko prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko zehapen-prozeduraren erregelamenduan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

Zehapen-prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea bederatzita hilabetekoa izango da gehienez ere.

53. artikulua. Erantzukizuna.

1. Erantzule izango dira:

a) Administrazio-emakida, -baimena edo -lizentzia behar duten jardueretan aritzean Ordenantza honetan ezarritako arauak hausten badira, jardueren titularra izango da erantzulea.

b) Gainerako arau-hausteen kasuan, nahasmendua eragin duen pertsona izango da erantzulea, edo arau espezifikoen arabera subsidiarioki erantzule dena. Adingabeek egindako arau-hausteean, gurasoak edo tutoreak dira erantzuleak.

2. Administrazio-erantzukizunak ez ditu galaraziko erantzukizun zibila eta penala.

En los supuestos en los que se haya constatado, mediante las actas correspondientes, la molestia grave y reiterada por parte de un foco generador de ruido deberán adoptarse, con carácter urgente, las medidas provisionales oportunas que deberán ajustarse a la intensidad, proporcionalidad y necesidad de los objetivos que se pretendan garantizar en cada supuesto concreto.

Artículo 50. Obligación de reponer.

1. Las personas presuntamente responsables estarán obligadas a adoptar las medidas correctoras necesarias establecidas, con independencia de la sanción penal o administrativa que se imponga.

2. La prescripción de infracciones no afectará a la obligación de reponer la calidad ambiental a la situación anterior a su alteración como consecuencia de la actuación de tales personas.

Artículo 51. Medidas de policía administrativa directa.

1. La Policía local exigirá en todo momento el cumplimiento inmediato de las disposiciones previstas en esta Ordenanza.

2. Sin perjuicio de proceder a denunciar aquellas conductas antijurídicas, podrá requerir verbalmente a las personas que no respeten las normas, a cesar en su actitud, cuando la misma se produzca en espacios públicos, perturbando de forma grave el descanso y la tranquilidad de los vecinos y vecinas y deteriorando la convivencia ciudadana y el civismo, advirtiéndoles que en caso de resistencia podrían incurrir en responsabilidad penal por desobediencia, pudiendo ser desalojadas, cumpliendo en todo caso con los principios de congruencia, oportunidad y proporcionalidad.

3. Con carácter excepcional e inmediato, en la vía pública, comprobado el funcionamiento de una actividad sonora sin licencia municipal, o tratándose de una actividad autorizada en la que se constate una superación del nivel sonoro permitido en más de 10 dBA, conforme a los límites establecidos en esta Ordenanza Municipal, o en el horario autorizado en más de 30 minutos, la Policía Local podrá proceder al comiso o precinto, de aparatos, equipos, instrumentos o cualquier otro emisor acústico, para evitar la persistencia de la conducta infractora, sin perjuicio de la apertura del correspondiente procedimiento sancionador, que determinará el mantenimiento o no de las medidas provisionales adoptadas.

4. Para el supuesto de emisiones sonoras producidas por las alarmas tanto de establecimientos e inmuebles, como las de los vehículos, se habilita a la Policía Local a utilizar los medios necesarios para su interrupción. Asimismo, en el ruido producido por la explosión de productos pirotécnicos sin autorización, se podrá proceder al decomiso de los mismos.

Artículo 52. Principios del procedimiento sancionador.

El procedimiento para sancionar las infracciones previstas en esta Ordenanza se tramitará conforme lo establecido en el reglamento del procedimiento sancionador del País Vasco, y cuantas otras disposiciones resulten de aplicación.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento sancionador será de nueve meses.

Artículo 53. Responsabilidad.

1. Serán responsables:

a) De las infracciones a las normas de esta Ordenanza cometidas con ocasión del ejercicio de actividades sujetas a concesión, autorización o licencia administrativa, su titular.

b) De las demás infracciones, la persona causante de la perturbación o quien subsidiariamente resulte responsable según las normas específicas. En las infracciones cometidas por menores de edad, se considera responsables a los padres o tutores.

2. La responsabilidad administrativa lo será sin perjuicio de la responsabilidad civil y penal en que se pudiera incurrir.

3. Delitua edo hutsegitea izan daitekeen egitateren bat antzematen bada, organo judicial eskudunari jakinaraziko zaio, eta agintaritza judiciala gaia aztertzen ari den bitartean, eten egingo da zehapen-prozedura administratiboa.

54. artikulua. Arau-haustekak.

1. Arau-haustekak dira Ordenantza honetako aginduak urratzen dituzten ekintzak eta ez-egiteak.

2. Udal Ordenantzaren aurkako arau-haustekak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

3. Arau-hauste arinak dira:

a) Administrazio eskudunari horretarako ezarritako epeetan ez jakinaraztea hark eskatutako datuak.

b) Ordenantza honetan ezarritako zarataren edo bibrazioen muga-balioak 3 dBA arte gainditzea, ingurumenari kalte edo narriadura larrikeria eragin ez zaionean eta pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri ez denean.

c) 3 dBA arteko desbideratzea, 34. eta 36. artikuluetan definitutako jardueri eskatzen zaizkien airetiko zarataren aurkako gutxienezko isolamendu akustikoaren balioen azpitik.

d) Zarata-iturriak instalatzea haien emisio-indizeei buruzko informazioa erantsi gabe, aplikatzekoa den araudiaren araberako informazio hori eska daitekeenean.

e) Ereku publikoan edo kanpoan ahots-erreproduzitaileak, soinu-anplifikadoreak, irrati- edo telebista-aparatuak, musika-tresnak, ahots-emanaldiak edo antzekoak instalatzea edo erabiltzea, horretarako baimenik gabe edo haren baldintzak bete gabe.

f) Produktu piroteknikoen tiroak egitea baimendutako ordu, leku eta ekintzetatik kanpo.

g) Abisu akustikoko sistemak ez mantentzea.

4. Arau-hauste larriak dira:

a) Urtebeteko epean bi arau-hauste arin edo gehiago egitea.

b) Ordenantza honetan ezarritako zarataren edo bibrazioen muga-balioak 3 dBA baino gehiago eta 6 dBA arte gainditzea, ingurumenari kalte edo narriadura larrikeria eragin ez zaionean eta pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri ez denean.

c) 3 dBA baino gehiagoko eta 6 dBA arteko desbideratzea, 34. eta 36. artikuluetan definitutako jardueri eskatzen zaizkien airetiko zarataren aurkako gutxienezko isolamendu akustikoaren balioen azpitik.

d) Titulu gaitzaileetarako behar den dokumentazio teknikoan hots-kutsaduraren arloan ezarritako baldintzak ez betetzea, nahiz eta ingurumenean kalte edo narriadura larrikeria eragin ez, eta pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri ez.

e) Ebaluazio Akustikoko Erakundeen jarduera hasi aurreko erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako betekizunak bete zezari buruzko funtsezko datu edo adierazpenen bat zehatza ez izatea, faltsua izatea edo ez adieraztea.

f) Administrazio publikoaren ikuskapen- edo kontrol-jarduera eragozte, atzeratzea edo oztopatzea.

g) Baimendutako soinu-mailak 4 dBA baino gehiago gainditzea ibilgailu motordunek eragindako zaraten kasuan.

h) Ziurtagiriak emateko datuak aldatzea.

i) Administrazio-espeditentean emandako ebazpen bidez ezarritako jardueraren funtzionamendu-ordutegiari jarritako muga ez betetzea.

3. En los supuestos en los que se apreciase un hecho que pudiera ser constitutivo de delito o falta, se pondrá en conocimiento del órgano judicial competente, y mientras la autoridad judicial esté conociendo el asunto, se suspenderá el procedimiento administrativo sancionador.

Artículo 54. Infracciones.

1. Son infracciones las acciones y omisiones que vulneren las prescripciones de esta Ordenanza.

2. Las infracciones a la Ordenanza Municipal se clasifican en leves, graves y muy graves.

3. Son infracciones leves:

a) La no comunicación a la administración competente de los datos requeridos por ésta dentro de los plazos establecidos al efecto.

b) La superación hasta en 3 dBA, los valores límite de ruido o vibraciones establecidos en esta Ordenanza, cuando no se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente ni se haya puesto en peligro grave la seguridad o la salud de las personas.

c) La desviación hasta en 3 dBA, por debajo de los valores mínimos de aislamiento acústico a ruido aéreo exigidos a las actividades definidas en el artículo 34 y 36.

d) La instalación de emisores acústicos sin acompañar la información sobre sus índices de emisión, cuando tal información sea exigible conforme a la normativa aplicable.

e) La instalación o uso de reproductores de voz, amplificadores de sonidos, aparatos de radio o televisión, instrumentos musicales, actuaciones vocales o análogas, en la vía pública o en el exterior, sin la pertinente autorización o incumpliendo las condiciones de la misma.

f) La realización de disparos de productos pirotécnicos fuera de las horas, lugares y actos autorizados.

g) La falta de mantenimiento de los sistemas de aviso acústico.

4. Son infracciones graves:

a) La comisión de dos o más infracciones leves en un plazo de un año.

b) La superación en más de 3 dBA y hasta 6 dBA, los valores límite de ruido o vibraciones establecidos en esta Ordenanza, cuando no se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente ni se haya puesto en peligro grave la seguridad o la salud de las personas.

c) La desviación en más de 3 dBA y hasta 6 dBA, por debajo de los valores mínimos de aislamiento acústico a ruido aéreo exigidos a las actividades definidas en el artículo 34 y 36.

d) El incumplimiento de las condiciones establecidas, en materia de contaminación acústica, en la documentación técnica precisa para títulos habilitantes, aunque no se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente, ni se haya puesto en peligro grave la seguridad o la salud de las personas.

e) La inexactitud, falsedad u omisión de cualquier dato o manifestación de carácter esencial sobre el cumplimiento de los requisitos exigidos señalados en la declaración responsable previa al inicio de la actividad de las Entidades de Evaluación Acústica.

f) El impedimento, el retraso o la obstrucción a la actividad inspectora o de control de las administraciones públicas.

g) Superar los niveles sonoros permitidos en más de 4 dBA en el caso de ruidos producidos por vehículos a motor.

h) Alteración de datos para la emisión de certificados.

i) El incumplimiento de la limitación de horario de funcionamiento de la actividad, impuesta por resolución dictada en expediente administrativo.

j) Dantzaldiak, kontzertuak edo antzeko ekitaldiak egitea, behar den baimena edo lizentzia izan gabe.

k) Aldez aurretik jakinarazi zaion ikuskapen-egintzara justifikaziorik gabe ez aurkeztea.

l) Udal Administrazioak baimendutako eta berrikusitako musika-instalazioak ordezkatzeta, ekipoak gehitzea edo aldatzea.

m) Jarduera egiten den bitartean ateak eta leihoak irekita izatea, Ordenantza honetan ezarritako baldintzetatik kanpo.

5. Arau-hauste oso larriak dira:

a) Urtebeteko epean bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

b) Udal-administrazioak zigilatutako aparatuak edo instalazioak baimenik gabe trukatzeta, manipulatzeta edo ordezkatzeta.

c) Eskatutako mugagailuak/erregistragailuak manipulatzeta, administrazio publiko eskudunak baimendu gabe.

d) Eskatutako jardueretan instalatutako soinua mugatzeko ekipoetatik datozen datuak transmititzeko sistemak deskonektatzeta.

e) Udal Administrazioak ezarritako ziguilak kentzea edo haustea.

f) Ordenantza honetan ezarritako zarataren edo bibrazioen muga-balioak 6 dBA baino gehiago gainditzea, ingurumenari kalte edo narriadura larrikeria eragin ez zaionean eta pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri ez denean.

g) 6 dBA baino gehiagoko desbideratzea, 34. eta 36. artikuluetan definitutako jarduerari eskatzen zaizkien airetik zarataren aurkako gutxieneko isolamendu akustikoaren balioen azpitik.

h) Zarataren edo bibrazioen muga-balioak gainditzea, ingurumenari kalte edo narriadura larria eragin zaionean eta pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri denean.

i) Jarduera edo instalazioa bertan behera uzteko aginduak edo ezarritako kautelazko beste edozein neurri ez betetzea.

j) Administrazio-ebazpen irmoz ezarritako legezkotasuna berrezartzeko neurriak ez betetzea.

55. artikulua. Zehapenak mailakatzeta.

1. Zehapenak ezartzeko, erantzukizuna aldatzen duten inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

a) Eragindako kaltearen edo narriaduraren garrantzia (deserosotasuna, arriskua, eragindako kalte-galerak, arriskuen iraunkortasuna edo iragankortasuna pertsonetikiko, ondasunetikiko edo ingurunearekiko).

b) Nahita edo zabarkeriaz jokatzeta.

c) Arau-hauste bera behin eta berriz egitea edo egiten jarraitzea.

d) Arau-hauslearen jokabidea araudia betetzeari dagokionez.

e) Arau-haustea ekonomian, ingurumenean edo gizartean duen eragina. Atal honen barruan, gauez izatea inguruabar astun-garritzat hartuko da.

2. Zehapenak ezartzeko, lege ezarritako zenbatekoak honako maila hauetan banatuko dira:

– Gutxieneko maila, gehieneko zenbatekoaren % 33tik beherakoa.

– Maila ertaina, gehieneko zenbatekoaren % 33,1 eta % 66 artekoa, eta,

– Gehieneko maila, gehieneko zenbatekoaren % 66,1 baino handiagoa.

j) Realizar verbenas o conciertos, o actos similares sin contar con la debida autorización o licencia.

k) La falta de presentación de forma injustificada al acto de inspección para el que haya sido notificado previamente.

l) La sustitución, incremento de equipos o modificación de las instalaciones musicales autorizadas y revisadas por la Administración Municipal.

m) Ejercer la actividad con las puertas y ventanas abiertas, fuera de las condiciones establecidas en esta ordenanza.

5. Son infracciones muy graves:

a) La comisión de dos o más infracciones graves en un plazo de un año.

b) El trucaje, manipulación o sustitución, sin autorización, de aparatos, o instalaciones, precintados por la Administración Municipal.

c) La manipulación, no autorizada por la Administración pública competente, de los limitadores/registradores exigidos.

d) La desconexión de los sistemas de transmisión de datos procedentes de los equipos limitadores de sonido, instalados en las actividades solicitadas.

e) El levantamiento o rotura de precintos impuestos por la Administración Municipal.

f) La superación en más de 6 dBA, los valores límite de ruido o vibraciones establecidos en esta Ordenanza, cuando no se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente ni se haya puesto en peligro grave la seguridad o la salud de las personas.

g) La desviación en más de 6 dBA, por debajo de los valores mínimos de aislamiento acústico a ruido aéreo exigidos a las actividades definidas en el artículo 34 y 36.

h) La superación de los valores límite de ruido o vibraciones cuando se haya producido un daño o deterioro grave para el medio ambiente o se haya puesto en peligro grave la seguridad o la salud de las personas.

i) El incumplimiento de las ordenes de cese de actividad de actividad o de instalación o de cualquier otra medida cautelar establecida.

j) El incumplimiento de medidas restauradoras de la legalidad impuestas por resolución administrativa firme.

Artículo 55. Graduación de las sanciones.

1. Para la imposición de las sanciones se tendrán en cuenta las siguientes circunstancias modificativas de la responsabilidad:

a) La importancia del daño o deterioro causado (incomodidad, peligro, daños o perjuicios causados, permanencia o transitoriedad de los riesgos o peligros respecto a las personas, a los bienes o al entorno).

b) La intencionalidad o negligencia.

c) La reincidencia y la reiteración o continuación en la comisión de la misma infracción.

d) Conducta del infractor en orden al cumplimiento de la normativa.

e) Trascendencia económica, ambiental o social de la infracción. Dentro de este apartado se considerará como circunstancia agravante la nocturnidad.

2. Las sanciones se impondrán dividiendo los importes establecidos legalmente en los siguientes grados:

– Grado mínimo, inferior al 33 % de la cuantía máxima.

– Grado medio, comprendido entre el 33,1 % y el 66 % de la cuantía máxima, y,

– Grado máximo, superior al 66,1 % de la cuantía máxima.

3. Arau-hauste bati gutxieneko zehapena ezartzea badagokio, zehapen hori maila ertainean edo gehienekoan ezarri ahal izango da, arau-haustea egitea ezarritako zehapena baino onuragarriagoa izan ez dadin.

4. Gaueko ordutegian egindako arau-hausteetan, dagokion zehapena justu goragoko mailan ezarriko da.

56. artikulua. Zehapenen zenbatekoak.

Ordenantza honetan aurreikusitako zehapenak honako hauek dira:

1. Arau-hauste oso larrien kasuan:

12.001 eurotik 300.000 eurora bitarteko isunak.

Aurreko puntuko diruzko zehapenez gain, egindako arau-haustek honela zehatu ahal izango dira:

a) Ingurumen-baimena edo jarduera hasteko baimena, ingurumen-lizentzia edo irekitze-lizentzia, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten gaikuntza-tituluatarako edo esku hartzeko beste figura administratibo batzuetarako behar den dokumentazio teknikoaren baimena edo onarpena baliogabetzea, betiere horietan kutsadura akustikoari buruzko baldintzak ezarri badira, edo haren indarraldia urtebete eta egun bat eta bost urte bitartean etetea.

b) Instalazio osoa edo instalazioen zati bat behin betiko ixtea.

c) Instalazio osoa edo instalazioen zati bat aldi baterako ixtea, gutxienez bi urterako eta gehienez bost urterako.

d) Jarduera, osorik edo zati batean, aldi baterako debekatea, gutxienez bi urterako eta gehienez bost urterako.

e) Jardueraren garapena behin betiko debekatea.

f) Ekipoak eta makinak aldi baterako zigilatzea, gutxienez bi urterako eta gehienez bost urterako, edo, hala badagokio, behin betiko zigilatzea.

g) Ezarritako zehapenak argitaratzea, bidezkotzat jotzen diren bitartekoen bidez, zehapen horiek administrazio-bidean edo, hala badagokio, jurisdikzio-bidean irmo bihurtu ondoren, bai eta pertsona fisiko edo juridiko erantzuleen izen-abizenak edo izen soziala eta arau-hausteen izaera ere.

2. Arau-hauste larrien kasuan:

a) 601 eurotik 12.000 eurora bitarteko isunak.

b) Aurreko puntuko diruzko zehapenez gain, egindako arau-haustek honela zehatu ahal izango dira:

I. Ingurumen-baimena edo jarduera hasteko baimena, ingurumen-lizentzia edo irekitze-lizentzia, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten gaikuntza-tituluatarako edo esku hartzeko beste figura administratibo batzuetarako behar den dokumentazio teknikoaren baimenaren edo onarpenaren indarraldia etetea, betiere horietan kutsadura akustikoari buruzko baldintzak ezarri badira, hilabete eta egun bat eta urte bat bitartean.

II. Instalazio osoa edo instalazioen zati bat aldi baterako ixtea, gehienez ere bi urterako.

III. Jarduera, osorik edo zati batean, aldi baterako debekatea, gehienez ere bi urterako.

IV. Ekipoak eta makinak aldi baterako zigilatzea, gehienez ere bi urterako.

3. Arau-hauste arinen kasuan:

a) 600 euro arteko isunak.

b) Ekipoak eta makinak aldi baterako zigilatzea, gehienez ere urtebeterako.

3. Cuando a una infracción pudiera corresponderle la imposición de la sanción en su grado mínimo, podrá imponerse ésta en sus grados medio o máximo para evitar que resulte más beneficiosa la comisión de la infracción que la sanción impuesta.

4. En las infracciones cometidas en horario nocturno, se impondrá la sanción correspondiente en su grado inmediato superior.

Artículo 56. Cuantías de sanciones.

Las sanciones previstas en esta Ordenanza son las siguientes:

1. En el caso de infracciones muy graves:

Multas desde 12.001 euros hasta 300.000 euros.

Además de la sanción pecuniaria del punto anterior, las infracciones cometidas podrán sancionarse con:

a) Revocación de la autorización ambiental o de la autorización de inicio de actividad, de la licencia ambiental o de la licencia de apertura, de la autorización o aprobación de la documentación técnica precisa para títulos habilitantes sometida a evaluación de impacto ambiental u otras figuras de intervención administrativa, en las que se hayan establecido condiciones relativas a la contaminación acústica, o la suspensión de su vigencia por un período de tiempo comprendido entre un año y un día y cinco años.

b) Clausura definitiva, total o parcial, de las instalaciones.

c) Clausura temporal, total o parcial, de las instalaciones por un periodo no inferior a dos años ni superior a cinco.

d) Prohibición temporal, total o parcial, del desarrollo de la actividad por un período no inferior a dos años ni superior a cinco.

e) Prohibición definitiva del desarrollo de la actividad.

f) El precintado temporal de equipos y máquinas por un periodo no inferior a dos años ni superior a cinco, o en su caso, el precintado definitivo.

g) Publicación, a través de los medios que se consideren oportunos, de las sanciones impuestas, una vez que éstas hayan adquirido firmeza en vía administrativa o, en su caso, jurisdiccional, así como los nombres, apellidos o denominación o razón social de las personas físicas o jurídicas responsables y la índole y naturaleza de las infracciones.

2. En el caso de infracciones graves:

a) Multas desde 601 euros hasta 12.000 euros.

b) Además de la sanción pecuniaria del punto anterior, las infracciones cometidas podrán sancionarse con:

I. Suspensión de la vigencia de la autorización ambiental o de la autorización de inicio de actividad, de la licencia ambiental o de la licencia de apertura, de la autorización o aprobación de la documentación técnica precisa para títulos habilitantes sometida a evaluación de impacto ambiental u otras figuras de intervención administrativa en las que se hayan establecido condiciones relativas a la contaminación acústica, por un periodo de tiempo comprendido entre un mes y un día y un año.

II. Clausura temporal, total o parcial, de las instalaciones por un periodo máximo de dos años.

III. Prohibición temporal, total o parcial, del desarrollo de la actividad por un período máximo de dos años.

IV. El precintado temporal de equipos y máquinas por un período máximo de dos años.

3. En el caso de infracciones leves:

a) Multas de hasta 600 euros.

b) El precintado temporal de equipos y máquinas por un período máximo de un año.

Azken xedapena.

Ordenantza hau Probintziako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 20 egunera jarriko da indarrean.

Xedapen indargabetzailea.

Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, indargabetuta geratuko dira Udal honek onartutako gainerako udal ordenantzen xedapenak, baldin eta ordenantza honen edukiaren aurkakoak badira.

ANEXO I

EBALUAZIO-METODOAK

A. Zarata-immisioaren mailak ebaluatze metodoa.

1367/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskinaren A atalean ezarritako prozedura aplikatuko da, bai eta geroko edozein aldaketa ere. Hona hemen deskribapena:

* Zuzenketa islapenengatik.

Fatxada baten edo beste elementu islatzaile baten aurrean egindako neurketan lortutako zarata-mailak zuzendu egin behar dira, haren efektu islatzailea baztertzeko.

* Zuzenketa hondo-zaratarengatik.

Puntu bakoitzean neurtutako zarata-immisioaren maila zuzendu egingo da puntu horretan dagoen hondo-zarataren mailarengatik. Zuzenketa hori honako hau izango da:

– Zarata-immisioaren mailaren eta hondo-zarataren mailaren arteko aldea 10 dB(A) edo handiagoa bada, ez da zuzenketarik egingo, eta zarata orokorra hartuko da jardueraren soinu-presioaren mailatzat.

– Diferentzia 3 eta 10 dB(A) artean badago, honako formula hau aplikatuko da:

$$L_{Aeq5S} = 10 \log (10^{0.1L_{Aeq5S} \text{ medido}} - 10^{0.1L_{Aeq5S} \text{ ruido fondo}}) \text{ dB (A)}$$

– Egindako neurketen ondoren diferentzia 3 dB(A) edo txikiagoa bada, sortutako balio zuzendua izango da jarduera funtzionatzen ari dela neurtutako balio handiena ken 3 dB(A). Kasu horretan, jarduera zaratsutik datorren zarata-maila hondo-zarataren berdina edo txikiagoa dela ulertuko da.

– Hondo-zarata neurtzea ezinezkoa bada jarduera etengabe funtzionatzen ari delako eta ezin delako gelditu, honela jokatu da:

– Zarata globalaren ekarpena argi eta garbi nagusi denean (hondo-zarata ez da entzuten edo ia ez da entzuten), zarata globala hartuko da jardueraren soinu-presioaren maila gisa.

– Hondo-zarataren maila eta jarduerarena antzekoak badira eta ezin bada argi bereizi bietatik zein den nagusi, zarata globala 3 dB-tan murriztua hartuko da jardueraren soinu-presioaren mailatzat. Kasu horretan, jardueraren soinu-presioaren maila zenbatetsizat joko da.

– Hondo-zarata etengabe argi eta garbi nagusitzen bada eta/edo jardueratik datorren zarata entzutea eragozten bada, eta soinu-presio globalaren maila muga-balio onargarria baino handiagoa bada, kalkulua egin behar da soilik jarduerak eragindako soinu-presioaren maila kalkulatzeko. Aldiz, soinu-presio globalaren maila muga-balio onargarria baino txikiagoa bada, ez da beharrezkoa izango kalkulu hori egitea, jardueraren ekarpena muga-balio hori baino txikiagoa izango baita.

* Zuzenketa osagai tonalengatik (K_t), osagai oldarkorrengegatik (K_r) eta behe-frekuentziengatik (K_b).

Zarata bat neurtzeko prozesuan antzematen bada osagai tonal emergenteak, behe-frekuentziako osagaiak, edo osagai oldarkorrek egoteagatik soinu-presio handiko eta iraupen laburreko soinuak edo osagai horien edozein konbinazio daudela, zarataren ebaluazio xehatua egingo da, beharrek zuzenketak eginda.

Disposición final.

Esta ordenanza entrará en vigor a los 20 días de su publicación en el «Boletín Oficial de Gipuzkoa».

Disposición derogatoria.

A partir de la entrada en vigor de esta Ordenanza, quedan derogadas las disposiciones de cuantas otras Ordenanzas municipales, aprobadas por este Ayuntamiento, se opongan o contradigan el contenido del presente.

ANEXO I

MÉTODOS DE EVALUACIÓN

A. Método de evaluación de niveles de inmisión sonora.

Se aplicará el procedimiento que se establece en el apartado A del anexo IV del Real Decreto 1367/2007 y cualquier modificación posterior. A continuación, se describe:

* Corrección por reflexiones.

